

Langileen krisia Europan

Ekonomiazko arazoak hurbildik segitzen dituenak ezezik,* kaleko edozein gizonek ere ba daki, gaur ekonomi kinka* larri batetan dagoela Mendebaldea,* eta bereziki Europa. Tunel batetan bezala, irteerako argirik oraindik ezin ikusirik.

Krisi honen fruitu larrienetako bat, zalantzarik gabe, lan gabezia da. Ekonomiazko egoera hontan, denok ikusten dugu nola lantegi zenbait hixten* den eta nola beste zenbaitetan lana urrituz joan den. Egoera honen lehen biktimak langileak dira

Edozein langile ere ez da berdin kolpatua,* bestalde. Lan alorrek eta lan motak zerikusi handirik dute. Oro* har, gehien sofritzen dutenak, atzerritar langileak dira. Frantzia dauden 260.000 eta Alemanian lan egiten duten 190.000 espainolak, Algeria, Italia, Jugoslavia, Portugal eta Turkiako beste asko eta asko, kapitalismo basatiak, herrietatik deserroturik* atzerrira bidali ditu lan bila, eta orain etxera igortzen* ditu, sobera* direlako. Azken 20 urte hauetako Europaren hazkunde* ekonomikoa kanpotar beharginei* esker egin da, hein* handi batetan. Alemaniak, Suitzak, Frantziak eta Britainia Haundiak ikaragarriro erakarri dituzte kanpoko langileak. The Economist aldizkariak dakarrenez, 1973.ean, Alemaniak 2.500.000, Frantziak 1.930.000 eta Suitzak 861.000 kanpotar langile zituzten. Izugarria da, Alemaniako langile guztien 9,4 % baita, Frantziako 9 % eta Suitzako 28,2 %.

Lana urrituz doan era berean, mugak hitxiz doaz. Hori da gaurko joera. Horren bazter problema bat Hendaia inguruan ikusten dugu geuk. Gero eta gehiago dira, muga iragan ezinik, hemengo aldean gelditu beharretan aurkitu ohi direnak. Aurrez lan kontraturik gabe doanik ez du Frantziak onartzen. Alde hontan gelditu behar. Gora doa holakoen kopurua:* 1972.ean 5.300 ziren mugaren honaindian geldituak, 1973.ean 8.091 eta 1974.ean 10.000tik gora. Portuges, algeriar eta marrokiarrak gehienbat.

Hauen ingurura, saiak* haragi ustelera bezala, pasatzaileak hurbildu ohi dira. Merkantzia ona bilatzen dute hemen. Horrenbesteko bat emanez —askotan, duten guztia—, Frantziara iragan nahi dute, kontzientzi gabeko merkataritza horiek gidaturik. Kondizio horietan pasatzen den kanpotar langilearen martirioa ez da hor amaitzen. Langile klandestinoak dira. Beraz, ez dute lan kontraturik, eta egon ere ez daude legez. Edozein ugazaba agintezalaren zampaketarik handiena jasan* beharretan daude sarritan, dauden kondiziotan defendatuko dituen erakunderik* ez baitago. Merkatu beltz hau benetan eta zinez* beltza da. (Joanes Lekerika)

Korsikarrak tiroka

Korsikarrak, beste asko bezala, aspaldidanik daude haserre-urik. Eta benetan egon ere, oraingoan erakutsi dutenez. Frantziak duen buruhausteetarik bat Korsikako uharte* hori da, gainerako zenbait Britainian, Okzitanian eta Ipar Euskal Herrian dituelarik.

Korsikarrek askatasun gehiago —askatasuna!— eskatu dute. Sarritan eskatu ere. Parisetik urrun ikusten dituzte beren buruak, gero eta urrunago. Bestalde, Parisek berak ere aski* abandonaturik dituela konturatzen dira. (Izan ere, ba dirudi,

Frantzia Parisez bakarrik axolatzen dela, gainerako lurraldeak desertutzat edo joz, hauetan istiluren* bat sortu artean.)

Korsikarrak gero eta haserreago daude. Manifestuekin eta manifestazioekin ez dute askirik. Gose grebek ez dituzte bete-tzen. Bomba batek edo bestek ez duela deus* leher erazten ikusi dute. Elkarriketaren etorkizunik eza lehendik ere frogatua* dute. Zer egin? Lekuak okupatzera jo dute oraingoan. «Pied-noir» («oin beltz» edo Algerian kolonizatzaile izandako) baten «Sovincor» izeneko ardo lantegia harrapatu dute, hortzetaraino harmaturik. Kolonizatzaile bezala hartzen dituzte hemen ere «pied-noir» hau, kanpotarrak izanez, Gobernuaren laguntza bereziarekin sartu baitziren uhartera, lurra erostera. Hauen kanpotatzea ere eskatzen dute korsikarrek, ez baitute konprenitzen, bertako semeek lan bila kontinentera joan behar duten bitartean, kanpotarrak lurra okupatzera nola datozen. Ekonomiazko hauzi handia da hori: urtero 20.000 gazte ateratzen omen dira uhartetik, lan bila; ardo aberastasunaren 70 %a 300 pertsonaren eskutan* dago, hauetako asko «pied-noir» direlarik; azken hogeitau urte hauetan sortu diren 700 ardo lantegietatik 200 bakarrik dira korsikarrak.

Azkeneko kolpea ARCEko autonomistek eman dute («Action pour la Renaissance de la Corse» da, talde autonomizale bat, 1967.ean sortua). 40 edo 50 langile sartu ziren «Sovincor» ardo lantegi hortara. Erdi sinbolikoa izan zitekeen ekintza, oso seriotan hartu zuen Gobernuak: sei helikoptero,



Simeoni jauna

Korsikako autonomizaleen buruzagia

auto harmatuak, gendarmeak eta poliziak bidali zituen, eskopetaz eta chiz* fusilez harmaturik zeuden langileen kontra.

Horren arriskutsuak ote dira, bada, korsikar hau? ARCEn buru den Simeoni jaunak deklaratu zuenez, zera eskatzen zuten: korsikar gazte guztientzako lanlekuak sortzea, lanlekuak korsikar egitea, herbestearekin etxeratzea, hizkuntzabatasunaren eta korsikar kulturaren promozioa, uhartearen barneberritzea, eta laborantzako eta turismoko lurren errekuatzea.

Eskabide hauen aurka indarkeria aukeratu du Poniatowski. Frantziako Barne Ministruak. Libération frantses egunkariak dioenez, «Korsikan Poniatowskik biolentzia hautatu du, har-